

### 1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	3.428
Zabalera:	281,49 km <sup>2</sup>
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Ipar-mendebaldea ( <a href="#">ikus mapa</a> )
Udalerriak:	Anue, Basaburua, Ezcabarte (sólo incluye: Anoz), Lantz, Odieta (excepto: Gascue, Guelbenzu), Ultzama

### 2. Komunitatea eta osasuna

Ultzamako eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 40tik 65 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Orokorrean, biztanleria maskulinizatu ageri da, 80 urteraino. Ultzamako eskualde oinarrizkoa da muturreko pobrezia arriskuaren tasa (%5,1) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen portzentajea (21,1%) txikiak dituztenetarik. Portzentaje hori gizonezkoendako kalkulaturiko adierazle beraren antzekoa da (%21,4), eskualde hau izanik gizonezkoen portzentajea emakumezkoena baino handiagoa duen bakarra.

Ultzamakoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, 6 hilabetetan amagandik edoskitzeari dagokionez (%78,6), emakumezkoen (%13,4) eta gizonezkoen (%7,3, Nafarroako txikiena) antsiolitiko eta antidepresiboan kontsumoari dagokionez, gizonezko jaioberrien bizi

itxaropenari dagokionez (80,8 urte) eta diabetesa diagnostikatu duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%4,6), izanik azken hori Nafarroako balio apalena. Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean artean dago, urteko kontrol erregistratua duten diabetikoen portzentajeari dagokionez (%60,0).

Nafarroa2000 zonifikazioan Ultzamako eskualde oinarrizkoa Ipar-mendebaldeko eskualdean baitago, aurreko gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Ipar-mendebaldeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik atereak. Ipar-mendebaldeko eskualde honetan, Pirinioei loturik gazteriari dagozkion adierazleak kalkulatzeko, emaitzarik hoberenak agertzen dira gazteen sedentarismoari dagokionez (%16,0), gazteen eguneroko tabako kontsumoari dagokionez (%19,6) eta langabezia tasari dagokionez (%7,9). Kontrara, eskualdeko emaitzak okerrenak dira gazteen alkohol kontsumo intentsiboari dagokionez (%45,1).

### 3. Osasunerako baliabideak


Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[-> Ikus eskualdeko aktiboan mapa](#)

## 4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor		
Factore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	34	9,9	9,4	3,7		27,0	
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	< 5	2,7	5,4	16,7		0,0	
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	215	8,1	9,2	15,7		6,7	
	4. Langabezia tasa #	2016	-	7,9	12,5	14,5		7,9	
	5. Muturreko pobreziaaren arriskuaren tasa	2015	-	5,1	8,8	16,6		4,7	
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	730	33,9	29,5	63,9		2,7	
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	21,1	39,0	49,1		15,8	
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	21,4	19,1	35,1		10,3	
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	14	78,6	61,2	44,4		80,0	
	10. Sedentarisismoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	22	16,0	20,2	27,5		16,0	
	11. Alkoholaren kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	69	45,1	37,8	45,1		28,2	
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	30	19,6	22,6	28,4		19,6	
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	61	21,3	20,5	25,0		19,2	
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	237	13,4 *	17,7	21,9		11,7	
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	124	7,3 *	8,6	12,5		7,3	
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	8	4,5	4,3	8,7		2,0	
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	144	4,6 *	7,1	9,0		4,6	
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	90	60,0	67,8	47,4		94,2	
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsioak	2016	298	59 *	65,4	49,9		90,7	
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	85,9	86,2	83,6		87,6	
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	80,8	80,1	78,0		84,1	



**Adierazleen iturria:** 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

# Eremu hauetako adierazleak: Ipar-mendebaldea (3, 4 eta 13) edo Ipar-mendebaldea + Pirinioak (10 - 12), Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

\* Nabarmen desberdinak ( $p < 0,05$ ) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.**  $\geq 65$  urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren  $\geq 80$  urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten  $\geq 15$  urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 16,3 eta gizonezkoak 7,9); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score  $\geq +2$ ); **17.** 2 motako diabetesa duten  $\geq 20$  urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 5,9); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.